

GIL 88 Gaztelugatxeko San Juan



Gaztelugatxeko San Juan uhartea, non itsas higaduraren fenomenoak ikusten baitira, hala nola arkuak eta abrasio-plataforma txiki bat. Lehen planoko material turbiditikoaren eta kareharrizko megrabetxek osatzen duten erliebearen arteko kontaktua ere ikusten da.

Kokapena (San Joan ermita)

- **Koordenatu geografikoak:**
Lat.: 43° 26' 51.78" N
Long.: 2° 47' 6.83" W
- **UTM koordenatuak:**
X: 517.377,78 m
Y: 4.810.557,29 m



Nola iritsi

Bermeotik, BI-3101 errepidea hartu behar dugu Bakiorantz. Behin Matxitxako lurmuturra pasatutakoan, Gaztelugatxeko San Juan eta Aketxe uharteak ikusten dira eskuinean. Bi kilometro aurrerago, eskuineko saihezbidea hartu behar dugu, Urizarreta baserrira (Eneperi jatetxea) doana, eta han utzi autoa. Handik, oinez egin behar dugu baserritik San Joanerako bidea. Errepide zaharretik ere joan daiteke; San Joaneraino doan pista asfaltatu bat da.



Gaztelugatxeko San Juan eta Aketxe uharteak Matxitxako lurmuturretik. Gaztelugatxeko San Juan, ezkerreko material turbidikoaren eta eskuineko kareharrizko blokearen arteko kontaktua sumatzen da. Lehen planoan, eskuinean, Aketxe uhartea.

GILaren deskribapen laburra

Gaztelugatxeko San Juan uhartea Behe Albiarreko (fazies urgondarra) sakonera txikiko itsas kareharriz osatua dago, zeinak Europar plakaren ertzeko plataforma karbonatatu batean metatu baitziren. Behe eta Erdi Albiarrean, gutxi gorabehera, faila estentsiboan eraginpean egon zen plataforma hori, eta, horregatik, kolapsatu egin zen ekoizpen karbonatatu; hala, hondoratu egin zen eremua, eta nagusiki kareharrizko megabretxaz osatutako birsedimentazio-serieak sortu ziren.

Bakioko megabretxen unitatea Gaztelugatxeko San Juanko plataforma-kareharrien gainean dago, modu diskordantean, eta desegite-fase bat ikusten da jarduera tektonikoak berriki eratutako ezpondetan. Halaber ikusten da eremua hondoratu zela, eta horrek berekin dakar itsasoaren mailaren igoera erlatibo bat .

Gerora, eremua hondoratu ahala, sakonera handiagoko kondizioak nagusitu ziren; turbidita-konoen sistema bat ezarri zen, hegoaldeko ekarpen siliziklastikoz elikatua eta sabai aldera gradualki iparraldeko ekarpenak zituena, eta pikor larriko fazies a ezaugarri zuena.

Ikuspegi geomorfologikotik, interes estratigrafikoa du Gaztelugatxeko San Juan uharteak, eta toki berezia da (Aketxe ere bai), urriak baitira uharteak Kantauriko kostaldearen alde honetan. Kostaldeko dinamikaren eraginez sortzen dira: labarra atzeratu egiten du pixkanaka, eta bakartuta geratzen dira zenbait harkaitz-uharte, higadurarekiko erresistentziarik handiena dutenak. Malda handia du, eta higaduraren emaitza diren elementu geomorfologikoak ikusten dira han, hala nola arkuak eta abrasio-plataforma txiki bat. Uhartea artifizialki lotuta dago lehorrarekin, bien artean geratu ziren harkaitzen gainean eraikitako zubi baten bidez.



Uhartea kontinentearekin lotzen duen zubia, serie turbidikoko arroken gainean eraikia. Aparkaleku txiki bat dago, baina, gaur egun, ezin da ibilgailuz iritsi hara. Abrasio-plataforma txiki bat ikusten da zubiaren bi aldeetan.



Serie turbidikoaren eta uhartearen erliebea osatzen duten kareharrizko megabretxen arteko kontaktua.



Mazela-metakinez eta harkoskoz osatutako hondartza, Gaztelugatxe San Juanaren ekialdean.



Ermitako hormako kareharriaren xehetasuna; plataforma karbonatatuako fosilak ageri dira, hala nola koralak, errudistak eta beste bibalbio batzuk.

Bestalde, Bermeo-Bakio errepidean, inguru honetan, mazela-metakinak pilatzen dira, zeinak gaur egun aktibo dagoen grabitazio-efektu batek sortzen baititu. Kolubial hori hareharrizko substratuak elikatzen du, eta, nagusiki, eskala zentimetrikotik dekametri-kora bitarteko blokez osatuta dago, zeinak klasto txikiagoen gainean irristatzen baitira. Klasto horiek buztin pedogenikoetan eta megabretxen unitateko material bigunetan sartuta daude. Errepidearen saihebidetara erakitzen ari dira orain, kolapso- eta irristatze-arazo horiek saihesteko.

Behatzeko punturik onena

In situ. Errepideko zenbait puntu eta Matxitxako.

Erlazionatutako GILak

- **Geografikoki:** GIL 7, GIL 22, GIL 95, GIL 105,
- **Gaiari dagokionez:** GIL 14, GIL 15, GIL 16, GIL 17, GIL 18, GIL 19, GIL 26, GIL 125.

GIL-aren balorazioa

Balorazioa		Baxua	Ertaina	Altua	Oso altua
Interes zientifikoa	Geomorfologikoa				●
	Hidrogeologikoa				
	Tektoniko/Estrukturala		●		
	Estratigrafikoa				●
	Paleontologikoa			●	
	Petrologikoa				
	Mineral-hobiak				
	Beste batzuk				
Interes ekonomikoa (erauzketa)			Iraganean	Potentziala	Martxan
Interes kulturala: Ermita bat dago uhartearen gainean, eta interes kultural handiko tokia da.					
Oharrak:					

Bibliografia espezifikoa

- Robador, A. eta García-Mondéjar, J. 1987. "Caracteres sedimentológicos generales del Flysch Negro entre Baquio y Guernica (Albiense superior-Cenomaniense inferior, provincia de Vizcaya)". Acta Geológica Hispánica 21-22, 275-282.
- Robles, S., Pujalte, V. eta García-Mondéjar, J. 1988. "Evolución de los sistemas sedimentarios del Margen continental Cantábrico durante el Albiense y Cenomaniense en la transversal del litoral vizcaíno". Revista de la Sociedad Geológica de España, 1(3-4), 409-441.
- Robles, S., Pujalte, V., Vicente, J. C. eta Quesada, S. 1989. "El Complejo turbidítico del Flysch Negro (Albiense-Cenomaniense inferior, Vizcaya): Caracterización e interpretación genética de sus elementos deposicionales y erosionales". In: Libro guía de excursiones geológicas del XII Congreso español de sedimentología, Leioa-Bilbo, 127-175.
- Vicente-Bravo, J. C. eta Robles, S. 1991. "Caracterización de las facies de transición canal-lóbulo en la secuencia Jata del Flysch Negro (Albiense superior, norte de Bizkaia)". Geogaceta 10, 72-75.